





SAGAR GOXO BAT
BI ITXASO
HIRU EGUZKI
LAU UR-TTANTTO
BOST LORE
SEI PAILLASO
ZAZPI JOALE
ZORTZI MARGO
BEDERATZI IZAR
HAMAR ZOZO
HAMAIIKA ERROTA
HAMABI OSTO
HAMAIRU TXORL....

HAU DENA
ETA GEHIAGO
EUSKADIKO HAURREI
EMATEA NAHI NUKE.


BAINA PITXI HOIEK
EZ DITUDAN EZKERO,
NERE ABESTI
ETA NERE IPIIAK
EMATEN DIZKIZUET.



MENDI ALDERA
PASEATZERA
JOATEAN,
NERE ABESTIAK
KANTATUKO
AHAL DITUZUE?

POZ
HAUNDIA
HARTUKO
NUKE!

Lurdes



Bazenbehings zelaian
eta bazenbehings garaian
bazen behin :



(hitzak eta doinuak: Lurdes)

Korrika - apustua

BEHIN, ZERU-GOIAN,
HODEI ZURIAK ETA HODEI BELTZAK PASEATZEN ARI ZIREN:
ETA HODEI ZURIEK
BELTZEI HONELA ESAN ZIETEN:

—BAI BELTZAK ETA ASTUNAK ZERATELA!
EZ GU BEZELA, ARIN-ARIÑAK...
EZIN DUZUTE KORRI EGIN!

—KORRI EGIN EZ? ZUEK BAIÑO HOBEKIAGO!

—KORRIKA-APUSTU BAT EGINO AHAL DEGU?
EA NORK IRABAZTEN DUEN:
ZUEK, BELTZEK, ALA GUK, TXURIEK...

—BALE! NUN EGINO DA APUSTUA?

—HEMEN, ZERUAN.
ZERU-ZELAIK OSO ZABALAK DIRA:
PROBALEKU EDER BAT IZANGO DEGU!

EGUZKIA HODEI ZURIEN ALDE JARRI ZEN.
IZARRAK ETA ILLARGIA HODEI BELTZEN ALDE.
IFAR-HAIZEAK ETA KAZKABARRAK
GOI-GOITIK BEGIRATZEN ZUTEN MALTZURKI.

—IRABAZIKO DEGU, IRABAZIKO DEGU!
TXURI TA ARIÑAK GERA, IRABAZIKO DEGU!

—IRABAZIKO DEGU, IRABAZIKO DEGU!
BELTZ ETA INDARTSU GERA, IRABAZIKO DEGU!



TXIMISTA BATEK SEIÑALEA EMAN ZUEN:
ZZZZZZSSSSSSSTTTTTZZZZZ
HANGO KARRERAK! HANGO IZERDIAK!
ZERU-ZELAIK DARDARKA ZEUDEN.




AZKENEAN, HODEI ZURIEK IRABAZI ZUTEN:
—BIBA! BIBA!!!

BAIÑA HANGO ZARATA ETA TXALOK ENTZUNDA,
TRUMOI HAUNDI BAT ETORRI ZEN.

OIUKA ETA ASERRE:

—ZEIN ARRAIOK ESNATU NAU?
ARRAPATZEN BADUT! BBBBRRRRRRRRR

TRUMOIAREN ASERREA ENTZUTEAN,
HODEI BELTZAK HASI ZIREN
EURITAN NEGARREZ:
—PLAX PLAX PLAX PLAX



ILLARGIAK ASERRE ESAN ZUEN:
—TRUMOI NAZKAGARRI BAT ZERA!
BETI OIHUKA!
ZURE KULPAZ HODEI BELTZAK
NEGARREZ EURITAN HASI DIRA!



ETA ILLARGIA ETA IZARREZ
BATEAN ESAN ZUTEN:
—GAU HONTAN EZ GERA BA ATERAKO!

*gau hontan
ez gera ba
aterako!*



4

—BAIÑA NIK (ZULO) HONTATIK ATERATZEA NAHI DUT!
EGUZKITAN LIBRE IZATEA NAHI DUT!

—EZ ATERA. SEME, JAN EGINO ZAITU TA...


—BAIÑA AGIAN ZAKURRAK EZ NAU IKUSIKO.
ETA GAZTA ARRAPA NEZAKE...

—EZ ATERA. SEME, JAN EGINO ZAITU TA...

—BAIÑA AGIAN ZAKURRA EZ DA HAIN GAIZTOA,
EZ ETA HAIN INDARTSU ERE!

—EZ ATERA. SEME, JAN EGINO ZAITU TA!...


—EZ BA! EZ ETA EZ ETA EZ!
HONELA BIZITZEAZ NAZKATU NAIZ!
GAZTAREN BILLA ATERAKO NAIZ
ETA ZAKURRARI BORROKA IRABAZIKO DIOT!!!



ETA XAGU TTIKIA ATERA ZEN
ETA ATERA ZEN UNE BEREAN
GGGRRRRRRRR
ZAKURRA GAIÑERA ERORI ZITZAION.

—AI, AI, AI!

OIHU EGITEN ZUEN XAGUAK,
ZAKURRA ATZETIK ZUELA.



BERE AMA (ZULOAN) NEGARREZ ZEGOEN:

—AI, ESAN NIZUN ISATSA TENTE
ZAKURRA HOR ZEGOELA BELARRI ERNE...
AI, AAI, AAAL!..»

ZAKURRAK XAGUA IA IA HARRAPATZEN ZUEN
BELARRIAK TENTE ETA ORTZAK ZORROTZ:

GGGRRRRRRRRRR

XAGUAK KORRI ETA KORRI EGITEN ZUEN,
ETA ZAKURRAREN ATZAPARRETATIK
DOI-DOI LIBRATU ZEN,
ETA BERE (ZULORA) SARTU.

BERE AMAK NEGARREZ BESARKATU ZUEN:

—«IKUSTEN? IKUSTEN?

ESATEN NIZUN KANPORA EZ IRTETZEKO!»

—«BAI, AMA, ARRAZOI DUZU,
BELDUR HAUNDIA PASA DUT.
BAIÑA, DENA DELA,
LIBERTATEA HAIN DA EDER ETA POLIT!»

— — — — —

ETA HONELA AMAITZEN DA
ZAKURRAREN ATZAPARRETATIK
DOI-DOI LIBRATU ZEN
XAGUTXOAREN HISTORIA.



Gure oillara.

(hitzak: Lurdes)


GURE OILLARRA
GOIZEAN KANTARI:
KIKIRIKIII
KIKIRIKIIIIII

BAI OILLAR TONTOA!
ABOTS SENDOA
TA LUMA EDERRAK.


Baina zer?
eta zer?

LAPIKO BATEAN EGOSIKO ZERA!

GURE OILLARRA
GOIZEAN KANTARI:
KIKIRIKIIIIII
KIKIRIKIIIIIIII



Kiki-Kiii i i i



Txakurra, Katua eta behia. 5

(hitzak eta doinuak: Lurdes)

GURE AITONAREN BASERRIAN ABERE ASKO DAGO,
BAIÑA NERE LAGUNIK HAUNDIENAK HAUEK DIRA:
TXAKUR BAT, KATU BAT ETA BEHI HAUNDI BAT.
ORAIN ESANGO DIZUET ZER IZEN DUTEN!

KATUAK BELTXA
TXAKURRAK TXURI
KATUA TA TXAKURRA
BELTZA TA TXURI.



BEHI BAT:
ISATS BAT
LAU ANKA
LEPOTIK ZINTZILIK
JOALE ALAI BAT.



BEHI BAT:
BI ADAR
BI BEGI
ETA ERRAPE HAUNDIA
ESNEZ BETERIK.

BADAKIZUTE: GURE KATUA BELTZ-BELTZA DA,

ETA BELTXA DU IZENA,
TXAKURRA TXURI-TXURIA DA,
ETA TXURI DU IZENA.
ETA BEHIA...
BEHIA HAUNDIA DA,
BAIÑA EZ DU IZENIK,
BEHIAREN IZENA ...BEHIA DA!!!

KATU BAT: miaaaaaaaaaa
TXAKUR BAT: uuu uuu uuuuuuu
BEHI BAT: muuuuuuuuuuuuuuu

